

## ZURI

Uxue Alberdi  
*Elgoibar, 15 urte*

Itsaso gardenen pare  
begirada txit argia  
gau ilunean izarren  
etengabeko irria,  
ahotsa fin eta ezti  
zeruko lorez jantzia,  
erreka garbien kantu  
eguzkiaren izpia,  
perfekzioan islada  
ederra bezain ezta,  
momentu honetan zuri  
kantuz natzaizu jarria.

Zu zara une txar oro  
goxatzen didan uhina,  
zu, neguaren erdian  
loratzen den krabelina.  
Gogoz helduko zintuzket  
basa larrosa bazina  
eta arantza bakoitza  
litzaidake atsegina,  
zu baitzaitut bihotzeko  
su, txinparta eta grina:  
irrifar ameslaridun  
mutiko begi urdina.

Zure itsaso ho(r)ietan  
olatu izan nahi nuke,  
hegaldatuz izan aske,  
zu baitzaitut begirada  
guztiz lausotzen didan ke,  
zu, gerra baten erdian  
haizeak dakarren bake,  
nahiz eta zu maitatzean  
jasan min, pena ta neke,  
bizia emango nuke  
irrifar soil baten truke.

Alaitzen nauen bezala  
egunsentiero ihintzak,  
neguan hain urri diren  
eguzki izpien printzak.  
Arrazoirikan ez baitu  
zu gabe nire bizitzak,  
nahiz eta zu ez ohartu,  
nahiz eta dena jan sitsak,  
nahiz eta letrak eraman  
denboraren zoko hitsak,  
bihotza dagoen lekuan  
gutxi balio du hitzak.